

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[4. zk.] 2022ko urria

BASOEN KUDEAKETA

BASOAK BIZIBERRITZEA

Iñigo Villanueva
Basoak Lehengoratzeko
bulegoburuari elkarrizketa

NAFARROAKO BASOGINTZA AGENDA

Nafarroako basoen egoera
eta kudeaketa ezagutuz

EUSKARA LANGAI

Enpresen euskararen erabilera
planei buruzko jardunaldia



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea



Burgin, baso ustiatzietako egurra garraiatzeko erabiltzen zen Ezka ibaiaren zati baten ikuspegi orokorra. Erdian, Burgiko errotaren eraikina eta bi almadiazainek zuzendutako almadia.

1938 Nafarroako Foru Diputazioa.

Vista general de un tramo del río Esca utilizado para el transporte de madera de explotaciones forestales, en Burgui. En el centro, edificio del molino de Burgui y una almadía dirigida por 2 almadieros.

1938 Diputación Foral de Navarra.



Nafarroako mendi bateko baso ustiatzian egurra ateratzeko instalatutako altzairuzko kable linea baten bista orokorra. Aurrean, bi gizon linearen abiatze plataformaren gainean. Atzean, kabletik zintzilik dagoen enbor batek ibarbide bat gainditzen du.

1938 Nafarroako Foru Diputazioa.

Vista general de un tendido de cable de acero instalado para la saca de madera en la explotación forestal de un monte de Navarra. En primer término, dos hombres sobre la plataforma de arranque del tendido. Tras ellos, un tronco suspendido del cable salva una vaguada.

1938 Diputación Foral de Navarra.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[4. zk.] 2022ko urria

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Basoak Kudeatzeko Atala,
Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Turismoko Marketinaren Atala,
Telekomunikazioetako eta
Digitalizazioko Zuzendaritza
Nagusia, Nafarroako
Parlamentuko prentsa zerbitzua,
Sakanako
Mankomunitatea, Artxiboen eta
Dokumentu
Ondarearen Zerbitzua.

Diseinua: cobo-munarriz.com

Azaleko argazkia: Francis Vaquero
(Nafarroako natura ondarea)

Irudiak: Oscar Munarriz eta
Freepik

Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

- 4 **Elkarrizketa:** Iñigo Villanueva
- 8 **Erreportajea:** Nafarroako Basogintza Agenda
- 10 **Gobernutik:** Nafarroako Geoataria
- 11 **Parlamentutik:** Arturo Campion-IKAren 50. urteurrena
- 12 **Udaletatik:** Sakanako Mankomunitateko hondakin bilketa
- 13 **Euskarabidetik:** Euskara Langai
- 14 **Hiztegi terminologikoa:** Zuhaitz izenak
- 15 **Ohar historikoa:** Merkataritza euskaraz XVIII. mendean

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena euskarabidea@navarra.es helbidera.

Iñigo Villanueva Zeberio

Basoak Lehengoratzeko bulegoburua Landa Garapeneko Departamentuan

“Basoen kopurua hazi egin da, duela bi eta hiru hamarkada baino askoz ere zuhaitz gehiago ditugu”



Nafarroako basoen kopurua, ezaugarriak eta berezitasunak, zeintzuk dira?

Lehenik, mendia eta basoa bereiztu behar ditugu, basoa mendiaren zati bat da eta basoa ez diren beste eremu batzuk ere badaude, eremu forestalak izenekoak eta zuhaitzik ez dutenak. Gure sailkapenak landa eremu eta urbanoen bereizketarekin hasten ditugu. Landa eremuaren barruan berriz, bi talde bereizten ditugu: mendia eta nekazal eremua. Andia mendiaren kasuan, adibidez, gehiena larreak dira, ez dago baso askorik, baina, hala ere, mendia da. Beraz, mendi eremuak, zuhaitzi eta basoz gain, bertze eremuak ere hartzen ditu (belardiak edo sastrakadiak adibidez). Nafarroak miloi bat hektarea ditu, eta honen % 60 mendia da. 10etik 4 nekazal eremuak edo urbanoak dira. Mendi aunitz dugu Nafarroan, gehiena Tafallatik gora. Hegoaldera, bestalde,

larre eremuak nagusitzen dira eta laborantzak indar gehiago du.

Gure ezaugarri nagusia aniztasuna da, urtean 450 mm-ko prezipitazioa duten eremuak dauzkagu eta 2500 mm-tik gorako esparruak. Bardeak ala Goizueta, aldea oso nabaria da bata eta bestearen artean. Altuerari dagokionez ere, badira 100 metrotik behera dauden herriak, Bera adibidez, edo 2000 metrotik gorako lekuak, Belagua, esate baterako. Kostaldetik hagitx hurbil ditugun eremuak ditugu eta beste batzuk, aldiz, oso urrun, honek eragin handia dauka gure lurralde heterogeneoan.

Lur komunal asko al daude Nafarroan?

Gure beste ezaugarrietako bat jabegoa da, bai. Nafarroako mendien bi herenak komunalak dira, batez ere, udalenak, kontzejuenak eta Nafarroako Gobernuarenak. Heren bat jabego

partikularra da Nafarroan. Gipuzkoaren kasuan, adibidez, alderantzizko egoera dugu, lurren gehiengo partikularra da eta ehuneko txiki bat komunala.

Orokorrean hemendik kanpo mendi lur pribatuak hemen baino pisu handiagoa dauka. Hemengo egoera oso berezia da. Espainia mailan, Nafarroan bezainbeste lur komunal ez da batere ohikoa.

Lur komunalen kudeaketa udalek/kontzejuek eta Nafarroako Gobernuak egiten dute, eskumena, hala ere, herriena da beraien lurretan. Herriek haien ordenantza eta arauak sortzen dituzte beraien eremuak kudeatzeko. Udalek ebazten dute zeinek duen eskubidea egurra lortzeko edota larreak erabiltzeko, kasu bakoitza ezberdina da. Mendien antolaketa planak egiten dira, zuhaitz motak aztertu, pista motak eta kopuruak zenbatu, larre motak ezagutu, helburu batzuk finkatzen dira eta horren ondoren, plangintza osatzen da. Nafarroako mendien gehiena erabilera publikoko mendiak izeneko kategoriakoak dira eta herriek ustiateten ondorioz ateratako etekin % 20 gutxienez mendiaren hobekuntzan inbertitu behar dute, ur puntuak jartzeko, mendizaleen bideak egiteko, zuhaitzak landatzeko, pistak berritzeko, etab.

Kudeaketa motaren arabera, Nafarroako Gobernuak ziurtagiriak ematen ditu arau jakin batzuk errespetatu dituztelako. Nafarroako mendien erdiek, gutxienez, ziurtagiri hau lortu dute. Mendi kudeaketa jasagarria bermatzen duten zigilu horien artean PEFC eta FSC izenekoak dira nagusienak hemen.

Basoen kalitatea nola neurtzen da?

Kalitatea zer da, bertako zuhaitzak izatea? Ongi haztea? CO₂-a ongi xurgatzea? Zerbitzuak eta ur puntuak ongi egotea? Kalitatea adierazle askorekin neur daiteke. Ez dago baso onik ala txarrik, neurtzen dituzun parametroen arabera ezberdina izanen da. Osasunaz hitz egiten badugu, orokorrean ona da, baina, klima aldaketarekin erronka handia dugu eta bertze zenbait arriskurekin ere. Esate baterako, Ipar Isurialdean, Radiata pinuarekin sekulako arazo izan dugu, eta ondo gaitz baten ondorioz,

ia-ia desagerrarazi egin da espezie hau. Gaztainondoek ere, “tinta” eta txankro” izeneko gaixotasunak pairatu dituzte eta intsektu berri bat ere sartu zitzaion. Ezpelarekin ere arazoak izan ditugu eremu batzuetan, Asiatik etorritako sitsak sortutako kalteen ondorioz.

Zeintzuk dira Nafarroako zuhaitzak?

Basorik handienak pagadiak dira Nafarroan, pagoa izanik espezie nagusia. Horretaz gain, ler gorria (Esteribartik Erronkari arteko eremuan zabaltzen dena batez ere), haritzak, arteak, larizio pinua (Nafarroa Erdialdean), alepo pinua (Erriberakoa), eta ametzak dira gure basoetako espezierik ohikoenak. Horiez gain, hainbat zuhaitz espezie gehiago dauzkagu gure mendietan, lizarrak, otsalizarrak, hostazuriak, haginak, izeiak, astigarrrak, baina hauek normalean ez dituzte baso zabalak osatzen. Multzo txikietan biltzen dira aipatu ditudan azken zuhaitz hauek, edo batzuetan baso zabaletan ere txertatzen dira.

Zein da klima aldaketaren eragina?

Nafarroako Gobernuan gai honetan lanean ari diren Atalak badira, eta momentuz ez dugu datu zehatzik maneiatzen. Hostoak geroz eta lehentxeago ateratzen dira, hainbat animalien arraultzen eklosioak aurreratzen ari dira, sute arrisku garaia luzatu egin da, lehorte garaia ere luzatu egin da, hau guztia eragin zuzena da. Aipatu dugun guztiak animalien eta landareen zikloan eragina du eta hau ez da hain agerikoa.

Basoen kudeaketa nola egiten da? Zuhaitzak moztearen beharra suteak ekiditeko...

Basoak ez du gure beharrik bizirauteko, baina guk basoak behar ditugu. Egurra nondik lortzen dugu? Papera nondik ateratzen da? Eta habeak? Material asko atera daiteke basoetatik, kontuan hartu egurra lehengai berriztagarria dugula eta distantzia laburrean lortu dezakegula. Bertako herri eta enpresendako ere ditu iturri bada. Hemen ekoizten den egurrak, 300-400 kilometroko erradio bateko ibilbidea egiten du gehienez ere. Gizakiok natura behar dugu, basoek ez dute gure beharrik aitzinera egiteko.

Nafarroako Gobernuak zuhaitzak mozteko baimenak emateko eskumena dauka; zenbat baimen ematen ditu?

Bai, hori da. Zuhaitz bakar bat mozteko baimena eskatu behar da. Jabego pribatu bateko mendi batean kokatuta dagoen zuhaitz bat mozteko baimena eskatu behar digute. Bide ezberdinak daude, eta kudeaketa udalekin batera egiten dugu, elkarlanean. Horrela, ehundaka eskaera jasotzen ditugu urtean. Azken 20-30 urteotan Nafarroako basoen azalera nabarmen hazi da. SITNaren mapa aztertzen badugu, basoen kopurua hazi egin da, duela bi eta hiru hamarkada baino askoz ere zuhaitz gehiago ditugu. Lehenago eremu ireki gehiago genituen,azienda gehiago zegoen eta belar gehiago behar zen; gaur egun, egoera aldatu egin da.

Nafarroa egur ekoizlea da? Zertarako erabiltzen da egur hori?

Bai, egur ekoizlea da, eta batez ere pinu mota ezberdinetan, beste mota bateko espezieak ere landatzen dira. Finean, haritz amerikarra, makala, bertako ler gorria, eta pagoa dira gehien ekoizten direnak. Urteen arabera asko aldatzen da, baina, 350-500 mila metro kubiko ekoizten dira urteko. Basoak, aldiz, 800 mila eta miloi bat metro kubiko artean hazten dira; beraz, hazten dena kentzen duguna baino puskaz handiago da. Aberasgarria da basoak haztea, baina beste aldetik, eremu irekiak geroz eta murriztagoak dira, eta honek animalien eragina dauka. Eremu irekietan egoten diren txori txikiak ez dituzu pagadietan aurkitzen; beraz, geroz eta leku ireki gutxiago badaude, animalia hauen egoera okertuz joanen da. Eta basoetan egoten diren animalien egoera, berriz, alderantziz; hauek erosoago biziko dira.

Zer deritzozu pellet sistemari?

Pellet-a biomasa sistema bat da; txikitua dator, material ezberdinak nahasten dituzte ekoizteko eta lehorra dago. Egurra normalean ezin da zuzenean sutara sartu, bere lehortze prozesua behar duelako. Pellet-a oso normalizatua dago, garraio lanak askoz ere errazagoak dira, eta abantaila asko dauzka, batez ere hiri gunetako eremuetan.

Nafarroan egurrezko etxeak eraikitzeak zentzurik al du?

Bai, noski. Norvegian ala Kanadan egiten dituzte duela ehundaka urte, zergatik ez hemen? Egurra hagitz material ona da isolatzaile moduan, bai termika aldetik eta baita akustika aldetik ere. Hemen ere egurrezko etxeak eraikitzearen ohitura zabaltzen ari da. Tratamendu zehatzekin suaren kontrako arriskuak nabarmen hobetzen dira.

Herri eta hirietan zuhaitzak falta dira?

Hau iritzi pertsonala da, herri batetik bestera asko aldatzen da egoera. Herri eta hirietan kontuan hartu behar dugu zuhaitzek mantentze lanak behar dituztela: etxe-aurretara iristen diren adarrak kimatu behar dira, gaitza badu tratatu behar da, erortzeko arriskua dute, etab. Geroz eta zuhaitz gehiago izanda hobe, baina mantentze lan horiek guztiak ere kontuan hartu behar dira.

Zein dira Nafarroako erreserba naturalak? Zein ezaugarri izan behar dituzte erreserba natural izendatzeko?

Babestutako eremuen inguruko araudia dago. Kategoria ezberdinak daude, eta Erreserba Naturala kategoria horietako bat da. Nafarroan, adibidez, hiru erreserba integral ditugu: Aztaparreta, Lizaroia eta Ukerdi. Bestalde, badira erreserba naturalak, lekune naturalak, babestutako paisaiak, natura-monumentuak... Kategoriaren arabera ezaugarri ezberdinak bete behar dira eta izendapena ere erakunde ezberdinek egiten dute. Esate baterako, Nafarroako Gobernuak legez ala dekretu bidez izendatu ditzake, edota herri ekimenen bidez ere egin daiteke. Eremu babestuari dagokionez, Nafarroan 85.000 hektarea inguru daude. Urederra (Nafarroa mailan bisita gehien jasotzen ditu), Urbasa eta Andia mendiak, Bertiz eta Bardeak erreserba naturalak dira; osotara 38 daude Nafarroan. Lekune naturalak, bestalde, dozenaka dauzkagu Nafarroan.

Jakin al daiteke nork edo zerk sortu duen sute bat? Zein dira isunak?

Suteen % 90 baino gehiago gizakiak sortuak dira, nahita ala nahi gabe. Tximistak sortutako

bakarren bat izaten da, kristalaren eraginez sortutakoren bat ere, baina hagitz arraroa da. AEMETen erregistroak izaten dira, eta tximistak non izan diren ikus dezakegu, hortik ere ondorioak ateratzen ditugu. Berez, sua debekatuta dago mendian, baina kasu batzuetan egin daiteke; baimena behar da horretarako. Nafarroako iparraldean oso ohikoa da sua egitea, aziendarendako bazkalekua ongi mantentzeko.

Araudi bereziak ditugu eremuaren arabera, baldintza ezberdinak daudelako. Askotan, hobe da erretzea gero sute baten ondorioz hondatzea baino. Azken finean, oreka bilatu behar da.

Isunei dagokionez, lehenik sutearen sortzailea bilatu behar da, eta hori ez da kasu guztietan lortzen. Batzuetan bai, eta hori aztertzeo estrategiak badira gainera; sua non hasi den jakin daiteke, nola piztu den ere jakin daiteke, baina beti ez da argitzen. Isunaren zenbatekoa kasuaren arabera izanen da; ez da gauza bera nahita piztutako sute bat ala nahi gabe piztutakoa.

Nola berpizten da baso bat? Nork egiten du lan hori?

Belarra erretzen denean oso kalte txikia sortzen da, eta sastraken kasuan ere azkar birsortzen dira. Zuhaitzen kasuan, suaren eraginaren arabera izaten da: azkar pasatzen bada, kanpoko azala erre egiten da, baina barrukoa ez; beste batzuetan, kixkali egiten denean, goiko zatia erre egiten da, baina beheko zatia ongi badago denborarekin birsortu egiten da. Berako sutearen kasuan, adibidez, erreta zegoen goiko zatia moztu egin zen eta beheko enborreko zatitik kimu berriak atera ziren sustraiak ongi mantendu zirelako.

Nafarroako Gobernuak sutearen ondorengo kudeaketa bere gain hartzen du. Jarraipena luzea da: sutea gertatu eta ondorengo urteetan landareen jarraipena egiten da, eta ondoren, kasuan kasu, zer egin behar den aztertzen da. Batzuetan berehala landatzen dira zuhaitz berriak, urte berean bertan, eta beste batzuetan, hamarkada bat pasa behar da berriz ere landatzen hasteko.



Geroz eta abeltzaintza eta nekazaritza gutxiago lantzen da, honek badu eraginik basoetan?

Lehenago aipatu dugu basoak eta sastraka eremuak zabaltzen ari direla; belardi eta larre eremuak txikitzea horren ondorioa da. Animaliek iratzea jaten zuten lehenago eta landare honi dagokionez askoz ere gehiago zegoen, gaur egun asko aldatu da egoera hori. Hau mundu mailako fenomeno da, ez da soilik Nafarroan gertatzen den salbuespena. Ez da soilik animalia gutxiago daudela, baizik eta modu estentsiboan hazten dituztenak ere are gutxiago direla.

Non daude Nafarroako zuhaitz zaharrenak?

Nafarroan gizakia iritsi ez den tokiak badaude (Larra), eta bertan egon daitezke zuhaitz zaharrenak. Eta beste kasu batzuetan, gizakiak berezitasun jakin batzuetatik babestu dituenak izan daitezke. Natura-monumentu izendatutako hainbat zuhaitz daude Nafarroan; Otsaportilloko hagina, Diputazioko sekuoia, guk besarkatu ezin ditugun hainbat haritz; Lantz inguruan badira oso zaharrak diren gaztainondoak ere. ■



Entrevista
a Iñigo Villanueva, Jefe
del Negociado de Restauración
Forestal del Departamento de
Desarrollo Rural y Medio Ambiente,
donde explica las características
forestales de Navarra.

NAFARROAKO BASOGINTZA AGEND**A**

Baso-politika eta haren plangintza tresnak estrategikoki eguneratzeko Nafarroako Gobernuaren agenda

Nafarroako Basogintza Agenda arautuko duten printzipioak, irizpideak eta jarraibideak ezarri ondoren, eta diagnostikoan sortutako ezagutzatik abiatuta, proposamenak identifikatu zituen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak. Proposamenek hiru osagai dituzte: epe ertain eta luzerako irudi objektiboa, ekintza horretan aurrera egiteko neurriak eta neurri horiek kudeatzeko sistema.

Proposatutako neurriak ondorengo 5 ardatz estrategikotan antolatuta daude:

1. BASO ARLOKO GOBERNANTZA

Basoen gobernantzaren helburu nagusia Nafarroako mendi guztietan basoen kudeaketa jasangarria sustatzea eta garatzea izan behar da. Hori baita ingurumeneko, ekonomiako eta gizarteko ahalik eta onura gehien modu orekatuan sortzeko aukera ematen duen oinarritzko eta ezinbesteko tresna, aldi berean babesa bermatuz eta herritarren bizi kalitatea hobetuz.

Herritarren parte hartzea errazteko, ezinbestekoa da informazioa eskuratzeko aukera erraztea. Bestalde, basogintza kudeaketa jasangarriak sinesgarria eta frogagarria izan behar du, eta, horretarako, baso-adierazle kualitatibo eta kuantitatibo egiaztatuetan oinarrituta egon behar du.

2. KLIMA ALDAKETA ETA ARRISKU NATURALAK

Gaur egun, erabateko adostasun zientifikoa dago klima aldaketa gertatzen ari dela eta ekosistemetan eragin nabarmena izango duela. Giza jarduerak eragindako aldaketa horren arrazoiei buruzko oso zalantza gutxi daude.

Ardatz honen bidez, Baso Agendan klima aldaketari eta beste arrisku natural batzuei buruz azalduakoa koordinatu nahi da, bai eta horiek basoetan eragiten dituzten kalteak ere.

Baso-lurraldeak eginkizun bikoitza du klima aldaketari dagokionez; ondorioak jasaten ditu, baina arintze tresna ere bada. Garrantzitsua da erresistentzia eta egokitzapen gaitasuna mantentzea eta indartzea, suteen prebentzioaren eta beste egokitzapen irtenbide batzuen bidez (espezie egokiak, landare bariatateak...).

3. BASOGINTZA SEKTOREA SUSTATZEA

Basogintza sektoreak aberastasuna eta enplegua sortzeko ahalmen handia du, bereziki landa ingurunean, eta funtsezko elementua da basoen kudeaketa jasangarria egin ahal izateko. Hala ere, basogintza sektoreak krisi estruktural luzea bizi du eta ezinbestekoa da sektore indartsu, moderno eta lehiakor baterantz aurrera egitea.

Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da basogintzaren jarduera ekonomikoa sustatzea, zuraren erabilera eta biomasaren erabilera energetikoa bultzatzea, basoko produktuen balioa nabarmentzea (zurezkoak zein zurezkoak ez direnak), baso-industrien lehiakortasuna hobetzea, jarduera ekonomikoa dibertsifikatzea eta sektorea Nafarroako jarduera ekonomikoa osoan egoki kokatzea.

4. BIODIBERTSITATEAREN KONTSERBAZIOA

Nafarroako azaleraren % 57 baso-lurraldea da. Larreek, basoek eta bi inguruneetako etapa serial guztiek, gainera, laboreek eta hiri inguruneek baino aniztasun handiagoa dute. Beraz, basoetan dago Nafarroako ingurumen aberastasunaren zati handi bat.

XX. mendearen erdialdetik aurrera, Nafarroako zuhaitz azalera izugarri ari da handitzen hedadurari eta metatutako biomasari dagokionez.

Baso-espezieen eta habitaten kasuan, jakina da baso mota batzuen hedadura handitu egin dela, batez ere pagadiena. Bilakaera horri esker, galtzeko arriskuan dauden hegazti batzuk berreskuratu dira; horien artean okil gibel nabarra. Espezie honen berreskurapenari dagokionez, Nafarroak erantzukizun berezia du, estatuko populazioaren ia % 100 bertan baitago.



5. BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZA

Basogintza sektore zabala eta konplexua da, arlo eta diziplina askokoa. Sektorea dinamizatzeko funtsezko elementuak dira ezagutza eta berrikuntza sortzea, garapen teknologikoarekin eta ikerketarekin batera.


Azken urteotan, balio erantsi handia duten basogintzako erabilera eta produktu berriak sortzen ari dira hainbat eremutan, hala nola eraikuntzan, bilgarrietan, biofarmazian edo energian. Erabilera eta produktu horiek baso-industriarako potentzial handia dute, eta, gainera, ekoizpena jasangarriagoa denez, kutsadura edo hondakin arazoak sortzen dituzten produktuak ordeztzeko aukera ematen dute. Horregatik, beharrezkoa da sektore osoan ikerketa bultzatzea.

Azkenik, kontuan hartu behar da basoak Nafarroako kulturaren, tradizioen eta bizimoduaren zati direla, eta gaur egun desagertzen ari den eta behin betiko galdu baino lehen zaindu behar den ondare kultural eta ez-material handia osatzen dutela.

Se exponen
los ejes de la Agenda
Forestal de Navarra, elaborada
por el Departamento de
Desarrollo Rural y Medio
Ambiente.

NAFARROAKO LURRALDEA EZAGUTZEKO AUKERA GEOATARI BERRIAREKIN


Foru Komunitateko informazio geografikoarekin eta kartografiarekin zerikusia duten baliabide, tresna eta ezagutza guztiak eskuratzeko gune nagusia da Geoataria.



Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak, Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Nafarroako Geoataria argitaratu du, Nafarroako Lurralde Informazio Sistemaren (SITNA) informazio guztia jaso eta modu erosoan erabiltzeko eskura jartzen duena. SITNA sisteman, Nafarroako Gobernuaz gain, hainbat erakunde eta enpresa publikok parte hartzen dute (mankomunitate ezberdinak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa edo Tracasa esate baterako), hauen arteko koordinazioa ezinbestekoa baita Nafarroako informazio geografiko ofiziala eraikitzeko.

Geoatariko bisoreak aukera anitz ematen ditu eta geruzak ezarri funtzionatzen du. Bestalde, Nafarroako lurraldea 3Dn ikusteko aukera ematen du eta baita mapa ezberdinen arteko konparazioak egiteko aukera ere.

Dituen funtzioen artean basoen kalitatea, landaretza mota eta orokorrean biodibertsitatearen aniztasuna eta ezaugarriak ezagutzeko aukera paregabea ematen digu, dauden mapa eta geruza ezberdinak aukeratuta. Adibide gisa, beheko mapan mendien erreferentziak eta basoen kalitatea koloretan ikusi dezakegu:



El nuevo Geoportal de Navarra recoge toda la información geográfica oficial y la presenta de manera accesible.



Nafarroako Parlamentuak Arturo Campion-IKA euskaltegiaren 50. urteurrenari omenaldia egin dio

Iruñean eta Nafarroan euskarazko hezkuntzarako erreferentzia izateagatik zoriondu du Nafarroako Parlamentuak Arturo Campion-IKA euskaltegia honen 50. urteurrenean. Ekitaldian talde parlamentario guztietako ordezkariak izan dira eta 70eko hamarkadan helduak euskaraz alfabetatzeko egin zen apustu aitzindaria nabarmendu da, euskaltegiak denboran zehar izandako aldaketa sozial eta politikoei egokitzeko gaitasuna azpimarratuz.

Arturo Campion euskaltegiak 1971-1972 ikasturtean hasi zuen bere ibilbidea Iruñeko Comedias kalean, lehenengo euskaltegi bat izanik, eta 1989ko ekainetik aurrera IKA koordinakundeko kide da, euskaltegi sare hori sortu zuten zentroetako bat izanik. IKA izenak 1989ko irailean egindako kanpaina erabilitako leloari egiten dio erreferentzia: Euskaraz, Ikas eta Ari (ikas eta ari, IKA).

Euskaltegiaren izena Arturo Campion hizkuntzalari iruindar eta euskaltzalearen omenez jarri zen, 1877an Juan Iturralde y Suitekin batera Nafarroako Euskal Elkargoa sortu zuena. Ekimen hau Euskaltzaindiaren aurrekari gisa uler daiteke, eta Campion bera Euskaltzaindiako fundatzaileetako bat izan zen. Bere lan anitzen artean, Nafarroako banderaren diseinuan parte hartu zuen, 1910ean Nafarroako Foru Diputazioak onartu zuena. ■



El Parlamento de Navarra ha puesto en valor la labor del euskaltegi Arturo Campion-IKA en su 50 aniversario.



Sakanako Mankomunitateko hondakin bilketa ezagutuz

Sakanako Mankomunitatea Nafarroan hondakinak biltzeko eredu berria ezartzen lehena izan zen. 2013ko ekainean hasi ziren atez ateko sistemarekin eta zortzi herritan ezarri zen: Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Bakaiku, Urdiain eta Olazti. Ziordian, Arruazun, Irañetan, Arakilen, Lizarragabangoan eta Ergoienan bilketa mistoa ezarri zuten. Zabor bilketa hau 9.000 herritarrekin hasi zuten; garai hartan, bilketa eredu berria ezarri aurretik, birziklatze tasa % 25ean zegoen. Datu honek aldaketa nabaria izan zuen birziklatze sistema berria martxan jarri zenetik. Egun, Sakana, Nafarroa mailan gehien birziklatzen duen eskualdea da.


Herriaren arabera bilketa eredu ezberdinak ezarri dira. Atez ateko sistemari dagokionez, bizilagunek asteko egun jakin batean hondakin mota bakoitza ateratzen dute, hala nola, materia organikoa, ontzi arinak, papera-kartoia, beira eta errefusa (pardelak eta konpresak egunero jasotzen dira). Herritarrek bere gakoan zintzilikatzen dute kuboak, egun bakoitzean atera behar den hondakin motarekin. Bilketarako ezarritako egunetan hondakinak ateratzea ezinezkoa denean (asteburuetan bakarrik dauden biztanleak) edota hondakinen tamainagatik edo kopuruagatik gakoan zintzilikatu ezin direnean larrialdi guneak erabil daitezke.

Sistema mistoa, berriz, modu ezberdinean kudeatzen da eta herri txiki eta kontzejuetan egiten da. Herritarrek materia organikoa, ontzi arinak, papera-kartoia eta errefusa gaika sailkatu eta etxolen barruan dauden edukiontzietan bota behar dituzte.

5. edukiontzia eta auzokonpost gunea beste bilketa mota bat da eta Altsasun eta Irurtzunen kudeatzen da. Hondakin mota bakoitza dagokion edukiontzian biltzen da, eta materia organikoa biltzeko bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia dago, irekitzeko giltza behar duena. Halaber, auzokonposta egiteko aukera ere eskaintzen da bi herri hauetan.

Gaur egun, bilketa sistema bat edo beste bat erabiltzeak eragin handia du emaitzetan. Hau da, birziklatzen eta berrerabiltzen diren hondakinen kopurua nabarmen aldatzen da bilketa sistemaren arabera, grafikoan ikus daitekeen bezala. Nafarroako Hondakinen Planak % 65eko gaikako bilketa lortzea ezarri du 2027rako, eta atez ateko sistema da momentuz helburu hori lortzen duen sistema bakarra. ■

Se analiza el sistema de recogida de residuos de la Mancomunidad de Sakana.



EUSKARABIDEAK EUSKARA LANGAI JARDUNALDIA ANTOLATU DU NAFARROAKO ENPRESEN EUSKARA SUSTATZEKO ESPERIENTZIAK ERAKUSTEKO

Beraien lan jardueran euskara txertatzeko lanean dihardute Nafarroako enpresa askok. Batzuk hasiberriak dira eta beste batzuk urteak daramatzate euskara beraien egunerokoan txertatzen; tamaina, eskualde eta jarduera ekonomiko ezberdinetako enpresak.



Bakoitzak bere aldetik urrats garrantzitsuak eman ditu arlo sozioekonomikoan euskara txertatzeko lanean, bezeroak hobeto artatzeko, ikusgarritasuna lortzeko edo euskara lehiakortasunerako giltzarri dela ikusi dutelako.

Euskarak alor sozioekonomikoan duen garrantziaz jabetuta, enpresa eta entitate ezberdinen praktika on horiek guztiak azaleratu nahi genituen, euskara txertatzeko lanean ari direnei bultzada eman eta horretan hasi nahi dutenei erakusleho bat eskainiz.

Euskara langai proiektua sortu da, Nafarroan hizkuntza kudeaketarekin erantzukizuna duten enpresen elkargune izateko asmoz. Barrura begira edo-eta bezeroekiko harremanetan euskara ere baliatzen duten edo baliatu nahi duten gero eta enpresa gehiago identifikatzea, elkartzea eta sare sendo bat osatzea da helburua, gizartearen isla izango dena.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuak, 2017tik, deialdi publikoa egiten du Nafarroako enpresei eta arlo pribatuko lantegiei euskararen erabilera handitzeko dirulaguntzak emateko. Dirulaguntza deialdi horretan enpresek euskara beren jardueran sartzeko aukera batzuk aintzat hartzen dira. 4 modalitate bereizten dira:

- 1. MODALITATEA:** lantokian euskararen egoeraren diagnostikoa egiteko eta lehenbiziko euskara planaren diseinua egiteko.
- 2. MODALITATEA:** dagoeneko diseinatua dagoen euskara planeko ekintzak kudeatzeko.
- 3. MODALITATEA:** euskara sustatzeko ekintzak solteak
- 4. MODALITATEA:** euskarazko eduki digitalak (webguneak eta software aplikazioak) sortzeko inbertsioak zein horiek euskaraz erabiltzeko egokitze-lanak

Hauk izan dira lehen Euskara Langai jardunaldiko parte hartzaileak:



Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera ha organizado un punto de encuentro para las empresas que tienen planes de euskera.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

ZUHAITZ IZENAK

Abaritza / Txaparra	Coscoja
Alboa / Platanoa	Plátano
Ametza	Melojo
Aranondoa	Ciruelo
Arbendolondo	Almendro
Artea	Encina
Artelatza	Alcornoque
Astigarra	Arce
Elorria	Espino
Ereinetza / Erramua	Laurel
Erkametza	Quejigo
Eukalipto	Eucalipto
Ezkie	Tilo
Gaztainondoa	Castaño
Gereziondoa	Cerezo
Gorostia	Acebo
Gurbitza	Madroño
Hagina	Tejo
Haltza	Aliso
Haritza	Roble
Hurritza	Avellano
Intxaurrondoa	Nogal
Ipurua	Enebro
Izeia	Abeto
Laranjondoa	Naranja

Laritza / Alertzea	Alerce / Lárice
Lizarra	Fresno
Madariondoa	Peral
Makala / Lertxuna	Álamo
Masustondo	Morera
Mertxikondoa	Melocotonero
Nekosta / Altzifrea	Ciprés
Olibondoa	Olivo
Otsalizarra	Serbal / Azarollo
Pagoa	Haya
Palmondoa	Palmera
Pinua	Pino
Pikondoa	Higuera
Sagarrondoa	Manzano
Sahatsa	Sauce
Urkie	Abedul
Xarma	Carpe
Zedroa	Cedro
Zumarra	Olmo
Zurzuria / Zumarzuria	Álamo blanco

OHAR HISTORIKOA

Jose Ramon Minondo goizuetarraren gutunak (1790-1807)



Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Jose Ramon Minondok Olaberria burdinolaren

jabeari bidaltzen zizkion gutunak jaso ditu bi liburukitan. Gutun hauek argi uzten dute XVIII. mendeko merkataritza harremanetan euskara erabiltzen zutela; hau da, euskara orain arte ezagutzen zen esparruetatik kanpo ere modu naturalean erabiltzen zela. Gutun hauek erakusten dutenez jakinarazpenak emateko gutunetan ere euskaraz aritzen baitziren.


Liburuek balio handia dute, izan ere, ez dira testu erlijiosoak eta hori ez da ohikoa izaten antzinako idatzietan. Gutun horien balioaz ohartzeko, gutunen xehetasunak ulertzea komeni da, eta xehetasun horiek aurkitu eta aztertzeko, ikerketa-lan sakona egin behar izan da. Eta hori da, beste behin ere, Akademiak lan bikoitz honekin egin duen ekarpena.

Gutun hauen balioaz jabetzeko, kontuan izan behar da Jose Ramon Minondok gutunak idatzi zituenean, Espainiar *Novísima Recopilación* lege-testuak merkatariei debekatu egiten zuela gaztelaniaz idatzita ez zeuden liburuak argitaratzea.

Lehen alean Goizuetako Minondotarren berri eta familiaren zuhaitz genealogikoaren berri emateaz gain, misiboen helburua ere zehazten da: Oiartzungo Olaberria burdinolaren kontuak zerrendatzea. Izan ere, gutun hauen bidez, Jose Ramon Minondok, burdinolaren arduradunak, Artikutzako Gotzain Juan Bautista Minondori kontuak ematen zizkion. Bera baitzen burdinolaren jabea.

Gutun horiek zerrendatu eta jaso dituzte bi liburuetan, 318 guztira. Hizkuntzaren trataera ezberdina da guztietan, batzuetan gehiena euskaraz idatzita dago eta beste batzuetan, berriz, euskara ez da hainbeste erabiltzen.

Euskararen erabilerari buruzko informazioa jasotzeaz gain, garaiko gizarte harremanen berri



izateko era balio dute gutun hauek. Izan ere, beraz irakur daiteke Goizuetara eta Oiartzun inguruetan zeuden burdinola hauek harreman komertzialak zituztela Donibane Lohizuneko eta Ainhoako bizilagunekin; itsasoz nahiz Urumean zehar.

XVIII. mendeko gizartearen nondik norakoen berri emateaz gain, egileek bigarren liburuan hizkuntza gai ugari aztertu dituzte. Hala nola, izen-morfologia, hitzen ordena eta onomastikako gaiak. Horrez gain, testuetan agertzen diren hitzak, erreferentziak eta laburdurak biltzen dituen hiztegia ere gehitu dute. ■

En la correspondencia del goizuetarra José Ramón Minondo se encuentran indicios del uso del euskera en el ámbito económico en el siglo XVIII.

www.euskarabidea.es



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea